


MINUSBALITUENTZAKO LAN-ERRESERBA



ENPLEGU-ERAGINTZARAKO NEURRIAK: LANPOSTUEN ERRESERBA KUPOA

Prozedura diskutigarria da, bortxazkoa denez, baina, egun, herrialderik gehienetan onarturik dago. Hontan datza, plantilako lanpostuen portzentaia jakin bat erreserbatzean, ezinduak izatea kredita dezaketen pertsonentzat. Portzentaia hau aldatu egiten da herriaide batetik bestera Austria 4, EFA 6, Erresuma Batua 3... bai-eta lanbidea bera sektore publikoaren edo pribatuaren barne dagoenaren arabera ere, oro har bortxazko kupo enpresa publikoetan handiagodelarik pribatuetan baino.

Belgikaren kasu konkretuan, lanpostu erreserbatuen portzentaia negoziagarri izaten da enpresa eta langile ordezkarien arteko komenio orokorraren barne.

Estatu Espainolean berrogeitamarretik gorako langile finkoen kopurua duten enpresa publiko nahiz pribatuak beharturik daude plantilako ehunetik biko portzentaian langile ezinduak hartzera.

Hala ere 2.531 /1970 Abuztuak 20ko Dekretuak beharkizun honen ordeztasun kontentsagarri bat ordaintzeko bidea aurikus-

ten du kunpligaitz gertatzen den kasutarako. Hona arrazoiak: "lanaren prozesuak ezarri exigentzia saihestezinekoak, edo-eta bereziki arriskutsu, toxikotasun edo neke handiko lanpostuak". Legea aldarrikatuz geroztik tasa ordaingarriaren kopurua aintzat hartu ez izatea, neurrikeragin izpirikizanezduelako froga garbia da.

Estatuaren barne kupo-formula honek praktikan eraginik ez izateaz aparte, aski sintomatikoa den zerbait behar da seinatu eta zera da, Administrazioak ongi libratu duela bere burua beharkizun honetatik, funtzio publikoan urrituentzat enplegu erreserbarik egiteke. Urriutak Gizarte Integraziorako 13/1982 Apirilak 7ko Legea, 38-3 artikulua testualki zehazten du: "Estatuko Administrazio, Komunitate autonomo, Administrazio Lokal Institutuzional eta Aseguru Sozialeko lanpostuetarako froga hautagarrietan gainerako izangaien parean, baldintza berdinetan, onartuak izango dira urrituak", zera esan nahi bait da, ez duela inork bereizketarik jasanen urritua izateagatik, zeina, bestalde, gutxienezko exijigarri den erabakia den.

Beste herrialdeetan, aitzitik, Administrazio Publikoan da hain zuzen kupoaren portzentaia hobekien aplikatzen, nahiz urrituek beren gaitasuna erakutsi behar izan, eta enplegua lortzeko beharrezko frogak gainditu (1).

Espainiako Administrazioak kupoaren beharrik ez zela erabakitzeko erabakia hartu duela esatea egia da funtsean, baina ez du bistatik galdu behar zenbait administrazio publikoetan beren borondatez bada ere harturik dutela lanpostuen zati bat eragoztunentzat erreserbatzeko jokabidea. Kataluniako Generalitatea eta, hurbileko administrazio bat aipatzeko, Donostiako Udala exenplu onak dira biak ere zentzu honetan.



Generalitateko Gobernuak 1984ko Apirilean onartu zuen Dekretu bat lanerako integrazioari buruz zeinaren lehen artikulua, lanpostuen erreserbaz ari dena, honako hau bait dio:

"Harik eta gerora Kataluniako funtzio publikoa legeztatu dadin arte, Generalitateko Departamendu eta erakunde autonomoek %2 portzentaiaz behera ez den pertsona eragoztunen kopurua bakoitzak bere plantilan lanerako hartuko du, lanaren oferta publikoetan hutsik gertatzen diren plazaetan erreserba kupoa aplikatuz, eta berdinean erregimen administratiboaren barne egin deialdian".

Kasik lau urte lehenagotik, 1980ko Ekainean, Donostiako Udaleko Gizarte Ekintza Batzordeak B. Iraunkorrari proposatzen dio onar dezala, besteren artean, honako puntuok berekin dakartzan akordioa:

—Beharrezko biderapenak egin daitezela "lan babestua" deitu erregimenaren barne langile eragoztunen kopuru jakin bat kontratatzeari dagokionean.

—Kopuru hau, 2.531/70 Abuztuak 22ko Dekretuan erabakirik dagoenaren arabera, Udaletxeko langile plantilari dagokion %2 portzentaian izango da.

Hilabete beraren barne Udal Batzorde Iraunkorrek zera erabakitzen du:

"Behar dela proposamendu hau kontutan hartu udal pertsonalaren kontratazioan, nahiz eta Udalarentzat 2.531/70 Abuztuak 22ko Dekretuan erabakia onartzeko ezein beharrik ez izan, Barne Arautegirako Batzordeari gomendatuz azter ditzala komenio bat moldatzeko posibilitateak Lantegi Babesturen batekin udal zeregin publikoetan eragoztunak enplegatzearren..."

(1) "Lanaren bidez". Dibulgazio Saila 3. zenbakia. Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Gizarte Ongintzako Kontseilaritzaordea.